

EUROPAKO LC DISTRICTS PROIEKTUAREN AZKEN EKITALDIA BRUSELAN

2022ko urriaren 11

Interreg Europe LC DISTRICTS proiektuak bigarren fasea gainditu du. Fase horretan, eskualde parte-hartzaileek beren eskualdeko ekintza-planak inplementatu dituzte. Nahiz eta COVID-19aren pandemiak munduan sortutako egoerak proiektatutako jarduera askori eragin, proiektuaren bigarren faserako definitutako eskualdeko ekintza-planen inplementazioa arrakastatsua izan da.

Urriaren 10ean, partzuergoaren azken topaketa egin zen Bruselan. Proiektuaren kolaboratzaileek eskualdeko planen inplementazioan izandako esperientziak partekatu zituzten, eta bileraren bukaeran proiektuaren ebaluazioa egin zen, bai eta parte-hartzaile bakoitzarentzako izan dituen onurena ere.

Biharamunean, 2022ko urriaren 11n, proiektuko kolaboratzaileetako batek, Italiako Marche eskualdeak, hedapen handiko ekitaldia egin zuen Bruselako egoitzan. 40 *stakeholder* baino gehiagok parte hartu zuten bukaerako ekitaldi hibrido horretan (aurrez aurre eta online).

Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuko zuzendari Javier Etayok eman zion hasiera bilerari, eta labur azaldu zituen LC Districts proiektua eta haren emaitzak, proiektuaren ibilbide-orria jasotzen duen bideo baten bidez.

Jarraian, 5 eskualdetako planen inplementazioan izandako esperientziak aurkeztu ziren, bai eta proiektuari esker eskualde kideetan izandako lorpenak ere.

Charo Camachok, Interreg Europe programaren ordezkariak eta idazkaritza bateratuko politiken ofizialak, aurkeztu zituen Interreg Europe programaren 2021-2027 aldirako deialdi berrian dauden eskualdeen arteko lankidetzarako aukerak.

Ekitaldia amaitzeko, eskualde kideetako bitatik etorritako bi adituk esperientzia pilotu arrakastatsua aurkeztu zituzten:

Kroaziako ipar-mendebaldeko REGEA energia-agentziako Tomislav Novoselek azaldu zuen nola integra daitezkeen klima- eta energia-neurriak hiri-plangintzako prozesuetan, Karlovac hirian izandako esperientzian oinarrituta.

Bestalde, Iruñeko Udaleko José Costerok adierazi zuen etorkizunerako, karbono-isuriak murrizteaz gain, energia positiboko auzoak sortu behar direla, soluzio energetikoak integratuta. Bere ezagutzak partekatu zituen, Iruñeko Rochapea auzoko OPEN Lab proiektuarekin izandako esperientzian oinarrituta.

Bukatzeko, Izaskun Abril andreak, Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolaketako zuzendari nagusiak, Europako eskualde arteko proiektuen garrantzia nabarmendu zuen, horietan esperientziak eta eskuratutako ezagutzak parteka baitaitezke.

Abrilek adierazi zuenez, “poz-pozik gaude proiektuaren akaberan berriz ere aukera izan dugulako elkarrekin bildu eta aurrez aurre aurkezteko parte-hartzaile guztien baterako ahaleginen emaitzak. Espero dugu proiektuaren emaitzak proiektuan parte hartzen duten eskualdeen artean partekatzea”.

<https://projects2014-2020.interregeurope.eu/lcdistricts/events/event/5408/transforming-the-built-environment-of-our-cities/>

Bruselan (Belgika) 2022ko urriaren 11n egindako LC Districts ekitaldiaren azken programa (ingelesez).

https://www.youtube.com/watch?v=FeJ_n7iORIs

LC Districts proiektuak Nafarroan izandako emaitzak aurkezteko bideoa (ingelesez).